

I.ERANSKINA

I. TALDEKO OSASUNEKO/ANIMALIATEGIKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA LAN POLTSA HANDITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.- Helburua eta oinarrizko elementuak.-

1.1.- Helburua.- Deialdi honen helburua da I. Taldeko Osasuneko/Animaliategiko goi mailako teknikarien lan Poltsa handitzea, UPV/EHUn aldi baterako premiak betetzeko.

1.2.- Oinarrizko elementuak.

1.2.1.- Hautako pertsonak beteko dituzte edo hutsik dauden lanpostuak harik eta lanpostuok arauak agintzen duten bezala bete arte, edo unibertsitatean sortzen diren aldi baterako premiak. Betiere, beharrezkoak izango da kasuan kasuko lanpostua edo premiak asetzeko behar diren baldintzak betetzea.

1.2.2.- Kasu bakoitzean, lanaldia eta ordainsaria izango dira deialdiaren bidez bete nahi den lanpostuari edo premiei dagozkienak. (II. Eranskina)

1.2.3.- Lanpostuak kokatuta egon ahal izango dira UPV/EHUn edozein lokaletan, eta hiru lurralde historikoetako edozeinetan.

1.2.4.- Hautatutako pertsonak I. Taldeko Osasuneko/Animaliategiko goi mailako teknikarien lan Poltsan lan-poltsan ageri den azken pertsonaren ondoren sartuko dira. Lan poltsa erabiltzean beti jarraituko zaio lan poltsak kudeatzeko arautegiari.

1.2.5.- Aplikatu beharreko arau orokorrekin gain, hitzarmen kolektiboa eta lan poltsei buruzko akordioak ere aplikatu beharko dira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.-

2.1.- Baldintza hauek bete beharko dira prozesuan parte hartzeko.

- a) Titulu hauetakoren bat izatea, edo eskaera-orriak aurkezteko epea amaitu aurretik titulazio hori eskuratzeko modua izatea. Betebeharreko titulazioa: gradua edo lizentzia, edo arkitektura edo ingeniari-titua, organo ofizial eskudunak emana. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.
- b) Otsailaren 1eko 53/2013 Errege Dekretuaren 15.2 artikuluan aurreikusitako gaikuntza izatea, a) animalien zaintza, b) eutanasia eta c) prozedurak egiteko eginkizunetarako, martxoaren 20ko ECC/566/2015 Aginduaren arabera. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da. Eskatutako gaikuntzetarako zati teorikoa egiaztatzen duen diploma dutenek, a, b eta c eginkizunetarako zati praktikoari buruzko gaikuntzarik ez badute, behar diren orduak egingo dituzte gainbegiratuta, kontratazioa egiten den campusa edozein dela ere.
- c) Eskabideak aurkezteagatik tasa ordaintzea

2.2.- Lanpostu jakin batzuetarako betekizun espezifikoak daude, egungo lanpostuen zerrendan definituak, eta horiek ere egiaztatu egin beharko dira. (II. Eranskina)

2.3.- Era berean baldintza hauek ere bete beharko dira prozesuan parte hartzeko:

- a. Hamasei (16) urte beterik izatea eta nahitaezko erretirorako adina bete gabe izatea.
- b. Eskaria behar bezala bete eta aurkeztea, eta prozesuan parte hartzeko tasak ordaintzea, deialdiko hirugarren oinarrian zehazten den legez.
- c. Europar Batasuneko kide diren herrialdeetakoren bateko herritarra izatea; edo, Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko hitzarmenen arabera, langileen zirkulazioa askea den herrialderen bateko herritarra. Espainiako eta Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea duten pertsonen ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez banaturik ez badaude, bai eta euren ondorengoek eta ezkontidearenek ere, ezkontideak zuzenbidez banaturik ez badaude, baldin eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik goragokoak izan arren, euren menpe bizi badira. Era berean, aurreko paragrafoetan sartzan ez diren eta estatu espainiarrean egoiliarrek diren atzeritarrek har dezakete parte. Hautatuak izanez gero, pertsona horiek egiaztatu egin beharko dute administrazioaren baimena daukatela izendapena-zereginak betetzeko, izendapena sinatu baino lehen.
- d. Egin beharreko lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Edozelan ere, beti aplikatuko da Desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorraren testu bategina (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa). Lan poltsatik deituz gero, langileak gaitasun fisikoa eta psikikoa duela egiaztatu beharko du medikuaren ziurtagiria aurkeztuz edo osasun azterketa eginez. Baldintza hori betetzea ezinbestekoa izango da bitarteko funtzionario izendapena jasotzeko. Desgaitasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonak gainerako lehiakideen baldintza berdinetan onartuko dira prozesuan, betiere egiaztatzen badute nahikoa gaitasuna dutela lan poltsari dagozkion lanpostuen zereginak betetzeko.
- e. Diziplina espedientearen bidez aldenduta ez egotea administrazio publikoetatik edo autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoetatik, eta ebazpen judizial baten ondorioz desgaitasun absoluturik edo berezirik ez edukitzea enplegu edo kargu publikoak betetzeko, edo norbera aldendua edo desgaitua izan den funtzionarioen kidego edo eskalan sartzeko edo norbera aldendua edo desgaitua izan aurretik lan kontratudun gisa betetzen zituen eginkizunen parekoak betetzeko. Beste estatu batzuetako nazionalitatea dutenen kasuan, desgaituta edo pareko egoera batean ez egotea, eta diziplina zehapenik edo antzekorik ez izatea, bere estatuan enplegu publikora sartzeara eragozten dionik.
- f. Legezko desgaitasun edo bateraezintasun arrazoirik ez izatea.

2.2.- Baldintza horiek eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako bete beharko dituzte izangaiek, bateraezintasunaren inguruko baldintza —f) atalean aipatutakoa— izan ezik. Azken hori bete beharko dute bitarteko funtzionario izendapena jasotzeko, lanpostua betetzeko hautatuak izanez gero.

Hirugarrena.- Eskariak aurkezteko era.-

3.1.- Eskariak bide elektronikoa/Internet bidez bakarrik aurkeztuko dira, eskabidea bidaltzeko aukera baliatuz, inprimakia bete ondoren, Langileen Atarian sartuta. (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp)

Eskatzaileak egiaztagiria eskuratu ahal izango du erreferentzia zenbaki batekin, bai eta tasak ordaintzeko ordainagiria ere.

3.2.- Onartuak izateko eta probetan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskariaren atal guztiak bete beharko dituzte, eta dagozkion tasak ordaindu. Eskarian adierazi beharko dute bigarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskariak aurkezteko epea amaitzen den datarako, oinarri horren bigarren atalean zehazten diren salbuespenekin.

Era berean, adierazi beharko dute ea UPV/EHUri aukera ematen dioten titulazioei edo desgaitasunari buruzko datuak egiaztatzeko. Bestela, EGOITZA elektronikoan aurkeztu beharko dituzte.

3.3.- Eskabideak aurkezteagatiko tasak:

Tasa honen ordaindu beharra ezarrita dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bateginean (1/2007 Legegintzako Dekretua, irailaren 11koa, 2007ko abenduaren 27ko EHAA, 248. zk.). Ordaindu beharreko zenbatekoa **20,27 euro** da.

Deialdi honetako 2.1. c) oinarrian zehaztutako baldintza betetzeko, tasak eskariak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira.

Tasa Euskal Autonomia Erkidegoko Ordainketa Pasabidearen bidez ordaindu ahal izango da, edo sistemak ematen dion abonu-agiria erabiliz, Kutxabanken edozein sukurtsaletan aurkeztuz, edo aipatutako erakundeak eskura dituen kutxazainek dituzten barra-kodeen irakurgailuak erabiliz.

Eskariak aurkezteko epean tasa ordaindu ezean, eskatzailea prozeduratik kanpo geratuko da. Ez da epe gehigarririk emango tasa ordaintzeko.

Era berean, tasa bankuan ordaindu izanaren agiria aurkeztu arren, ezin izango da prozesuan parte hartu eskaria legezko epean eta eran ez bada aurkezten, aurreko ataletan zehaztu den bezala.

3.4.- Eskariak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.5.- Desgaitasunen bat daukaten hautagaiek hala adierazi beharko dute eskarian, horretarako egongo den laukian. Era berean, beharrezko badute denbora edo baliabideak egokitzea probak egin ahal izateko, hala adierazi beharko dute. Egokitzapenak beharrezkoak direla egiaztatzeko, eskatzaileak desgaitasuna aitortzen dion agiri ofiziala eta behar dituen egokitzapenei buruzko txostena aurkeztu beharko ditu. Dokumentu horiek onartuen eta eskabideak aurkezteko epean UPV/EHUKo egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, epaimahaiak beharrezko neurriak har ditzan.

Desgaitasuna duten pertsonatzat joko dira Desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean hala definitutakoak (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, 4. art.), hau da, administrazioko organo eskudunak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu dienak.

3.6.-Eskariarekin batera ez da aurkeztu beharko inolako dokumenturik, ez bada egokitzapenak eskatzeko eta tasak ordaindu izana egiaztatzeko aurkeztu beharrekoa, aurreko atalean azaldu den moduan. Kasu horretan, UPV/EHUREN EGOITZA elektronikoaren bidez egin beharko da, Euskal Herriko Unibertsitatearen bitarteko elektronikoen bidezko funtzionamendu- eta jarduera-araudiaren 5.c) artikuluan adierazitakoaren arabera.

3.7.- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak apirilaren 27an emandako 2016/679 EB Erreglamenduko 13. artikuluekin bat etorrira (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko erreglamendua), honen bidez jakinarazi nahi dizut zure datuak helburu hauetarako erabiliko direla: hautaketa prozesua gestionatzea, eta deialdian zehaztutakoari jarraituz prozesuari lotutako eta prozesutik eratorritako egintzak betetzea.

Datuen tratamendua beharrezko da langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko prozesuak egiteko UPV/EHUK daukan lege eginbeharra betetzeko, guztia oinarri hartuta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 33. artikulua (bitarteko langile funtzionarioak eta aldi baterako lan kontratudunak).

Interesatuaren eskubidea da: bere datu pertsonalak atzitzea; datu okerrak zuzentzeko eskatzea, edo ezabatzeko eskatzea, batez ere datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak bildu zirenean zeuden helburuetarako.

Egoera jakin batzuetan, datuen tratamendua mugatzea eskatu ahal izango du interesatuak, eta halakoetan, bakar bakarrik gordeko dira erreklamazioak egikaritzeko edo aldezteko.

Bereziki, inguruabar jakin batzuetan eta haien egoera partikularrarekin lotutako arrazoiengatik, interesdunek beren datuen tratamenduaren aurka egin ahal izango dute. UPV/EHUK datuak tratatzeari utziko dio, premiazko arrazoi legitimoengatik edo balizko erreklamazioak egiteko edo aldezteko izan ezik.

Interesatuak bere eskubideak egikaritzeko, eskuragarri ditu eskari orriak gunen honetan: <http://www.ehu.eus/babestu>

Deialdi honetan zehaztutako prozeduran parte hartzean ulertzen da interesatua aipatutako horren guztiaren jakitun dela, baina, hala ere, informazioa eman ahal izango zaio oinarri hauetan jasotako eskari orri arautuarekin batera, eta informazio osagarria izango du eskura web gunean (<http://www.ehu.eus/babestu>).

Laugarrena.- Izangaiak onartzea.

4.1.- Eskariak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, UPV/EHUKO gerentearen erabaki baten bidez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

argitaratuko da UPV/EHUren web orrian, administrazio eta zerbitzuetako langileen atalean: <http://go.ehu.eus/azp-kanpo-deialdiak>

Baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazioa jartzeko.

Epearen barruan aurkeztutako erreklamazioak onetsi edo ezetsiko dira onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara ematen duen erabakiaren bidez.

Interesdunak ez badu konpontzen, aipatutako epean, bera baztertzea ekarri duen akatsa, eskaria bertan behera utzi duela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 68.1 art.).

4.2.- Behin-behineko zerrendaren kontra erreklamazioak jartzeko epea amaitutakoan, hamar eguneko epean argitaratuko da onartutako izangaiei behin betiko zerrenda. Erabaki horren kontra aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, UPV/EHUko gerenteari, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, jurisdikzio horretako dagokion epaitegian.

4.3.- Prozeduran zehar epaimahaiak jakiten badu hautagaien batek ez duela betetzen deialdian eskatutako baldintzaren bat, baztertu egingo du hautagai hori prozesutik, aurretik hari entzunda, eta egunean bertan jakinarazi beharko dio Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Zerbitzuari.

4.4.- Izengaien behin-behineko eta behin betiko zerrendetan datu hauek agertuko dira: izena, bi abizenak eta NANen lau zenbaki aleatorioki, edo, atzerriko hautagaien kasuan, pareko agiriarena. Horren helburu bakarra da fase bakoitzean prozesuaren publizitate printzipioa betetzea eta interesdunei jakinarazpenak egitea. Edozelan ere, datuen erabilera hau bat dator datu pertsonalen babeserako legediarekin.

Bosgarrena.- Epaimahaia.-

5.1.- Epaimahaia gizonez eta emakumeez osatua egongo da modu orekatuan. Epaimahaikideek gaitasun eta prestakuntza egokia izango dute.

Hiru kide izango ditu epaimahaiak: epaimahaiko burua eta UPV/EHUko administrazioak izendatutako bi kide; horietako bat idazkaria izango da.

Epaimahaiaren osaera gerentearen erabaki baten bidez argitaratuko da.

Epaimahaiak kide anitzeko organoen funtzionamendu arauari jarraituz jardungo du.

5.2.- Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen botoen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketa egonez gero, epaimahaiko buruaren botoak ebatziko du.

5.3.- Epaimahaiaren behin betiko erabakien kontra, baldin eta gaiaren funtsa erabakitzen badute, prozedurak aurrera egitea eragozten badute edo defentsa-gabezia

sortzen badute, gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

5.4.- Epaimahaian, gainera, titularrak bezain beste ordezkoko egongo dira. Horiek izendatuko dira titularrak izendatzearekin batera.

5.5.- Epaimahaia ezin izango da osatu, ezta aritu ere, ez badira bertaratzen epaimahaiko burua eta idazkaria (edo haien ordezkokoak) eta gutxienez epaimahaikideen erdiak (titularrak edo ordezkokoak).

Epaimahaiak aholkularien laguntza eskatu ahal izango du deialdi honetan aurreikusitako hautaketa-prozesuetako proba guztietarako edo batzuetarako, eta aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan jardutera mugatuko dira.

5.6.- Epaimahaiko buruaren eta bere ordezkokoaren karguak hutsik badaude, edo kargu horietarako izendatutako pertsonak kanpoan edo gaixorik badaude edo epaimahaian egon ezin badira arrazoi legalen bategatik, maila, antzintasun eta adin handieneko epaimahaikideek ordezkatzeko dituzte, hurrenkera horretan.

Idazkariaren eta bere ordezkokoaren karguak hutsik badaude, kargu horietarako izendatutako pertsonak kanpoan edo gaixorik badaude edo epaimahaian egon ezin badira arrazoi legalen bategatik, epaimahaiak gehiengo aukeratzen dituzten epaimahaikideek ordezkatzeko dituzte.

5.7.- Epaimahaikideak prozeduran parte hartzetik abstenituko dira, eta UPV/EHUko gerenteari emango diote horren berri, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. artikuluan aipaturiko egoeraren batean daudenean (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

Era berean, egoera horietakoren bat gertatuz gero, interesdunek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, lege beraren 24. artikuluari jarraituz.

5.8.- Bermatu beharko da oposizio fasea gainditzen dutela probara aurkezten diren pertsonen % 33k gutxienez. Beraz, hautaketa sistema ondo aplikatzeko eta oposizio fasea gainditu behar duten pertsonen ehuneko hori lortzeko, epaimahaiak, aurkeztu diren pertsonak nortzuk diren jakin barik, jaitsi ahal izango du proba bakoitza gainditzeko beharko den gutxieneko puntuazioa, betiere kontuan hartuta probetan eskatu beharreko gutxieneko maila eta izangaiek erakutsitakoa. Gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa jaistea erabakiz gero, argitara emango du erabaki hori epaimahaiak.

5.9.- Jakinarazpenetarako eta bestelako gorabeheretarako, hau izango da epaimahaiaren helbidea: Bizkaiko Campusa, Pertsonaleko Gerenteordetza, AZPkoen Hautaketa eta Hornikuntza, Bilbioteka eraikina. 2. Solaiura, Sarriena auzoa z.g.- 48940 Leioa.

Hautaketa-prozesutik kanporatzeko arrazoiak izango da izangaiek hautaketa-prozesuko probak egitean epaimahaiak emandako aginduak edo argibideak ez betetzea.

Seigarrena.- Hautaketa prozesuaren garapena.-

6.- Hautaketa prozesuak fase hauek izango ditu:

6.1.- Oposizioa

Oposizio fasean honako ariketa hauek egin beharko dira:

6.1.1.- Ariketa bakarra: guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaillea.

Hautaketa prozesuan ariketa bat egin beharko da, gutxienez zero (0) punturekin eta gehienez hogeita (20) punturekin baloratuko dena. Bi zati izango ditu: bata teorikoa eta bestea praktikoa eta gutxienez hamar (10) puntu lortu beharko dira proba gainditzeko.

Ariketaren zati guztiak saio bakarrean egingo dira.

6.1.1.1.- Lehenengo zatia (teorikoa).

Ariketa hau idatzizkoa izango da eta test motako ehun (100) galdera erantzun beharko dira, gehi erreserbako beste hamar (10); galderak erantzun anitzekoak esango dira, oinarri hauetako III. eranskinean zehaztutako gaietarako.

Ez da punturik kenduko okerreko erantzunengatik edo erantzun gabeko galderengatik.

Lehen zati honengatik gehienez hamar (10) puntu emango dira, eta gutxienez zero (0).

Zati honetako puntuazio totala lortzeko, gainditu dutenen zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio bihurtuko dira banaketa proportzional baten arabera, hau da, ehun (100) puntuko zuzeneko puntuazioa izango da hamar (10) puntuko amaierako puntuazioaren parekoa. Eragiketa horiek egingo dira izangaien izen-abizenak jakin barik.

6.1.1.2.- Bigarren zatia (praktikoa)

Bigarren zatia kasu praktikoa izango da, epaimahaiak proposatutako hiruren artean aukeratuko dena eta prestatu beharreko gaiekin zerikusia izango duena.

Bigarren zati honengatik gehienez hamar (10) puntu emango dira eta gutxienez zero (0) puntu.

6.1.2.- Epaimahaiak izendatuko dituzten proben datak, orduak eta lekuak, eta iragarriko dituzten LAN ESKAINTZEN ATARIAREN bitartez eta laugarren oinarriko lehen atalean aipatutako web orriaren bidez.

6.1.3.- Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu beharko dituzte desgaitasuna duten eta hirugarren oinarrian zehaztu bezala hala eskatu duten pertsonentzat, izangai horiek gainerakoen aukera berberak izan ditzaten, betiere horrek probaren edukia desitxuratu barik, aldi baterako langileak kontratatzeke deialdi batek izan beharreko tramitazio arina moteldu barik eta lanerako eskatzen den gaitasun maila jaitsi gabe.

6.1.4.- Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie proba egiteko Lan eskaintzen atariaren bidez. Probak azaltzen ez direnak prozesutik baztertuta geratuko dira, ezinbesteko kasuetan izan ezik, betiere behar bezala justifikatzen bada eta epaimahaiari justifikazioa nahikoa iruditzen bazaio.

6.1.5. Izangaiak beren identitatea egiaztatzeke dokumenturen bat eraman beharko dute probak (NANA, pasaporte edo gida baimena), eta epaimahaiak kideek edozein momentutan eskatu ahal izango diete agiria erakusteko.

6.1.6.- Probak euskaraz egin gura dituztenek halaxe adierazi beharko dute eskari orria betetzean. Antolaketa arintzeagatik, inork ez badu eskatzen probak euskaraz egitea, gaztelaniaz egingo dira.

6.1.7.- Oposizio faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko.

6.2.- Merezimendu lehiaketa

6.2.1.- Oposizio faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea irekiko da lehiaketa faserako merezimenduak aurkeztu eta egiaztatzeko.

Merezimenduen alegazioan, UPV/EHUK dokumentu horiek egiaztatzearen aurka dauden pertsonen UPV/EHUn erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dituzte.

Egiaztapen horren aurka agertu ez diren pertsonen egiaztatu ezin izan diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaie.

Oposizio faseko behin-behineko emaitzen kontrako erreklamazioa aurkezten dutenek erreklamazioarekin batera merezimenduak eta haien egiaztatzeak aurkeztu beharko dituzte.

6.2.2.- Fase honetako kalifikazioa lortzeko —gehienez ere hamar (10) puntukoa izango dena— batu egingo dira merezimenduetako puntu guztiak, honako baremo honen arabera:

A) Titulazio akademiko ofizialak. Lan-poltsan honetan sartzeko **eskatzen denaz bestelako titulazio akademiko ofizialak** baloratuko dira, baremo honen arabera:

- Doktorego titulu bakoitzagatik: 6 puntu Osasuna/Animalietegia espezialitatearekin loturarik badu eta 2 puntu loturarik ez badu.
- Gradua, lizentziatura, goi mailako ingeniarietza edo goi mailako arkitektura: 4 puntu bakoitzagatik Osasuna/Animalietegia espezialitatearekin loturarik badu eta 2 puntu loturarik ez badu.
- Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluaren Erregistroan (RUCT) erregistratutako unibertsitate master ofiziala: 3 puntu bakoitzagatik Osasuna/Animalietegia espezialitatearekin loturarik badu eta puntu 1 loturarik ez badu.
- Unibertsitate bateko graduondoko berezko titulua, gutxienez 450 ordukoa edo gutxienezko iraupen hori bermatzen duen kreditu kopurua duen bakoitzeko: 2 puntu bakoitzagatik Osasuna/Animalietegia espezialitatearekin loturarik badu eta puntu 1 loturarik ez badu.

B) Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak. Merezimendu hau baremo honen arabera baloratuko da:

Frantsesa, ingelesa, edo alemana:

- C1 edo gorakoa (Hizkuntzako Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 3 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B2 (Hizkuntzako Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B1 (Hizkuntzako Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

- A2 (Hizkuntzako Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- A1 (Hizkuntzako Europako Erreferentzia Marko Bateratua): 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Balorazioa egiteko erabiliko da, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Ebazpenean hizkuntza ez-ofizialen baliokidetzei buruz ezarritako mailen baliokidetasunak hartuko dira kontuan. Ebazpen hori Koordinaziorako eta Nazioarteko Harremanetarako errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko Ebazpenaren bidez eguneratu zen.

Elkarreragingarritasun-nodoan eskuragarri ez dauden edo UPV/EHUn aurkeztu diren titulazioak (alegazioan adierazi beharko da) tituluaren edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiriaren fotokopia edo hori egiaztatzen duen ziurtagiri akademikoaren bidez egiaztatuko dira, eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen lortu badira soilik hartuko da kontuan.

Ondorio horietarako, titulazioa egiaztatuta ez duten pertsonei 10 eguneko epea emango zaie aurkezteko.

Gauza bera gertatuko da ofizialak ez diren hizkuntzak jakitearekin. Hala eskatuz gero, eskatutako tituluen fotokopiaren bidez egiaztatuko da, eta ez da inolako frogarik egingo horretarako. Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen lortutakoak baino ez dira kontuan hartuko.

Aipatutako agiriak aurkezteko, UPV/EHUn EGOITZA ELEKTRONIKOA erabili beharko da, Euskal Herriko Unibertsitatearen bitarteko elektronikoen bidezko funtzionamendu-eta jarduera-araudiaren 5.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.3.- Euskara.- Euskara merezimendutzat joko da, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa arabera.

Honako puntuazio hau lortu ahal izango da, gehienez:

- 4. HE: 6 puntu.
- 3. HE: 4,5 puntu.
- 2. HE: 3 puntu.
- 1. HE: 1,5 puntu.

Hizkuntza eskakizunak baliozkotzeko, bi arau hauek aplikatuko dira: 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, EAEko Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizazioa arautzen duena, eta 65/2023 Dekretua, apirilaren 18koa, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

Euskararen ezagutza egiaztatzeko, kontsulta egingo zaio Euskara Tituluen Erregistro Bateratuari edo administrazio publikoen elkarreragingarritasun-nodoari, eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen lortu badira soilik hartuko da kontuan, salbu eta eskabidean aurka egiten bada; kasu horretan, UPV/EHUn EGOITZA ELEKTRONIKOAN aurkeztu beharko dira.

Era berean, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek

dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, elkarreragingarritasun-nodoan eskuragarri ez egoteagatik hala eskatzen bazaie.

6.4.- Lehiaketa fasea ez da baztergarria izango, eta fase honetan lortutako puntuazioak ez dira kontuan hartuko oposizio faseko ariketak gainditzeko.

6.5.- Merezimenduen eta euskararen behin-behineko puntuazioak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko.

Epea amaituta eta erreklamazioak aztertuta (halakorik balego), puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

6.6.- Lan poltsan sartzen diren **pertsonen hurrenkera** erabakiko da puntuazio totalaren arabera. Bakoitzaren puntuazio totala kalkulatu da honako hauek batuz: merezimenduen puntuazioa, euskarari dagokion puntuazioa eta oposizio faseko probaren puntuazioa. Berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrenkera:

1. irizpidea: oposizio fasean puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.
2. irizpidea: oposizio faseko atal praktikoan puntuazio handiena lortu duenak.
3. irizpidea: Merezimenduen lehiaketan puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.
4. irizpidea: Merezimenduen lehiaketako atal bakoitzean puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna, oinarri hauetan atalok agertzen diren hurrenkeran.
5. Baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioko dena delako kidego, eskala, maila eta kategorian emakumeak % 40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean.

Irizpide hauek aplikatuta ere berdinketa hautsi ezin bada, zozketa egingo da,

6.7.- Izangaiei eragiten dieten prozesuarekin zerikusia duten egintza guztiak deialdiaren webgunean eta lan eskaintzaren atarian argitaratuko dira. Puntuazioei edo erreklamazioen erantzunei buruzko argitalpenak lan eskaintzaren atarian bakarrik egingo dira, eta jakinarazpenetarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da.

Zazpigarrena.- Epaimahaiaren proposamena.-

Hautapen prozesua amaitu ostean, epaimahaiak prozesua gainditu duten izangaien sailkapena egingo du, puntuazio totalen arabera, eta bakoitzak atal bakoitzean lortu duena zehaztuta. Gero, UPV/EHUko Gerentziari helaraziko dio zerrenda, prozesuen gaineko behin betiko erabakia har dezan.

Epaimahaiaren proposamenen kontra, gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio UPV/EHUko Gerentziari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lan poltsako zerrendan honako xehetasun hauek jasoko dira:

- Poltsako kide guztien izen-deiturak.
- Kide bakoitzaren hurrenkera zenbakia.
- Deialdi horretan parte hartu duten kideek baremoaren arabera lortutako puntuazioa.

- Euskaran eta hizkuntza ez-ofizialetan egiaztatutako mailak.

Zortzigarrena.- Gorabeherak.-

8.1.- Epaimahaiak eskumena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian hartu beharreko erabakiak hartzeko, hautaketa prozesua modu egokian bete dadin.

8.2.- Hautaketa prozesu bat gaindituta lan poltsa batean sartzen direnek lan eskaintzetarako hobespenak zehazteko epe orokorra itxi ondoren lan poltsan sartzen diren momentuan zehaztu ahal izango dituzte hobespenok urte horretarako.

8.3.- Deialdia, oinarriak eta haietatik sortutako administrazio egintza guztiak inpugnatu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutako kasuetan eta eran (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa,).

8.4.- Deialdi honekin lotutako informazioa emango da UPV/EHUko Bizkaiko Campusa, TEKAZELe Hautaketa eta Hornikuntza, Biblioteka eraikina, 2. solairua, Sarriena auzoa z.g.- 48940 Leioa.

Bederatzigarrena.- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.-

9.1.- Lan poltsatik lanerako deia jasoz gero, interesdunak aurkeztu beharko ditu bigarren oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentuak, horretarako zehaztuko den epean.

9.2.- Ezinbesteko kasuetan izan ezik, adierazitako epearen barruan hautagaiak ez badu dokumentazioa aurkezten edo ez badu egiaztatzen baldintza guztiak betetzen dituela, hautatuen zerrendatik kanpo geratuko da automatikoki.



II. ERANSKINA

FUNTZIONARIOEN ETA LAN-KONTRATUKO LANGILEEN LANPOSTUEN ZERRENDA

U008 IKERKETA ERREKTOREORDETZA

FUNTZIONARIOEN ETA LAN-KONTRATUKO LANGILEEN LANPOSTUEN ZERRENDA

LZ Zk.	kode	Lanpostuaren Izena	Dot.	H. E	Taldea	Esk.	O.E. / K.P.	Espez.	Maila	H.E	B.E.	Campusa	Lan.	Oha.
L 455	273	SGIkerreko teknikaria	19	L	I		124	09	26	3.11/19	72	3	A	
L 480	273	SGIkerreko teknikaria	26	L	I		124	09	26	3.12/22	72	3	A	
L 40	136	Animaliategiaren arduraduna	1	L	I		109	09	25	3	55	3	A	

Betebehar espezifikoak (B.E.):
72 Doktoregoa eta otsailaren 1eko 53/2013 Errege Dekretuaren 15.2 artikuluan aurreikusitako gaikuntza, a) animalien zaintza, b) animalien eutanasia, c) prozedurak egitea eta d) proiektuen eta prozeduren diseinua funtzioetarako.
55 Otsailaren 1eko 53/2013 Errege Dekretuaren 15.2 artikuluan aurreikusitako gaikuntza, animalien ongizatea eta zaintza «in situ» gainbegiratzeko erantzukizuna bere gain hartzeko e) eginkizunerako